


Eraikuntza-kostuek, Euskal AEn, % 0,2 egin dute gora 2023ko maiatzean

Urte arteko terminoetan, 2023ko maiatzean, 2022ko maiatzaren aldean, prezioek % 4,2 egin dute gora

Euskal AEko eraikuntzaren kostuen indizeak % 0,2 egin du gora 2023ko maiatzean, aurreko hilarekin alderatuta, Eustatek emandako datuen arabera. 2022ko hil berarekin alderatuta, kostuek % 4,2 egin dute behera.

Eraikuntzaren sektoreko kostuek % 0,6 egin dute gora hilabete arteko terminoetan, eta Obra zibilekoek, % 1,1 behera. 2022ko maiatzarekin alderatuta, prezioak % 4,7 igo dira Eraikuntzaren kasuan eta % 2,3, Obra zibilaren kasuan.

Euskal AEko Eraikuntzaren kostuen indizearen urte-arte aldakuntza-tasak sektoreka



Iturria: Eustat. Eraikuntzaren kostuen indizea

Aurreko hilaren aldean, 2023ko apirilaren aldean, **lehengaien** kostuek % 0,3 egin dute gora, eta **eskulanaren** kostuak berdin jarraitu du. Urte arteko terminoetan, berriz, lehengaien kostuak % 4,9 egin du gora, eta eskulanenak, % 2,1.

Lehengaien kostuak Eraikuntzaren sektorean % 0,7 egin du gora, eta Obra zibilarenean, hilen artean, % 1,5 behera. Urte arteko bilakaeran, Eraikuntzako lehenagaien kostuek % 5,5 egin dute gora, eta Obra Zibilekoenak, % 2,3.

Euskal AEko eraikuntzaren kostuen indizea. Aldakuntza-tasak (p). Maiatza 2023

	Indizea	Aldakuntza (%)	
		m/m-1	m/m-12
Guztira	125,8	0,2	4,2
Eraikinak	125,5	0,6	4,7
Obra zibila	126,9	-1,1	2,3
Lehengaiak	127,8	0,3	4,9
Eraikinak	127,5	0,7	5,5
Obra zibila	129,2	-1,5	2,3
Laneskua	119,1	0,0	2,1

Oinarria 2015=100

m / m-1 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

(p)Behinbehineko datuak

Data 2023ko Ekainaren 26a

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren Kostuen Indizea

Eraikuntzaren sektorean kontsumitutako lehenagaien prezioetan, 2023ko maiatzean, 2022ko maiatzarekin alderatuta, igoerarik handienak erregistratu dituztenak honako sektore hauekoak izan dira: *Mineral ez-metalikoen industria* (% 16,4), *Zuraren eta kortxoaren industria* (% 14,4), *Kautxua eta plastikoa* (% 11,4) eta *Mineral ez-metalikoak* (% 11,2). Sektorearen lehenagaiak diren produktuak ekoizten dituzten azpisektore nagusiak eta prezioen jaitsiera izan dutenak, berriz, honako hauek dira: *Petrolio-fintzea* (% 28,3ko jaitsiera) eta *Energia elektrikoa eta gasa* (% 24,5eko jaitsiera).

Euskal AEn kontsumitutako lehengaien prezioak, sektorearen arabera (A64). Urte arteko aldakuntza-tasa (p) . Maiatza 2023

	m / m-12
Ezmetalezko meak	11,2
Zuraren eta korboaren industria	14,4
Petrolio fintzea	-28,3
Industria kimikoa	2,2
Kaubuxa eta plastikoa	11,4
Produktu mineral ez-metalezkoak	16,4
Metalgintza	-8,3
Metalezko artikulak	1,4
Material elektronikoa	-1,1
Material elektrikoa	3,6
Makineriaren fabrikazioa	5,4
Altzarigintza	5,7
Energia elektrikoa eta gasa	-24,5

Oinarria 2015=100

(p)Behinbehineko datuak

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Data 2023ko Ekainaren 26a

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren Kostuen Indizea

Argibide gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62